



LAUDIO
ikastola ➤*



OHIKO BATZAR
OROKORRERAKO
TXOSTENA

2026ko ekaina

AURKEZPENA

Kaixo guztioi,

Urtero bezala, Asanblaren atarian gaude, eta gure ikastolaren jardueraren nahiz egoera ekonomikoaren berri emango dizuegu. Datu auditatuek gardentasunarekiko dugun konpromisoa erakusten dute, baina zenbakien atzean komunitate oso baten ahalegina, konpromisoa eta ilusioa daude.

Hitzarte hau gure ikastolaren oinarrian dauden bi balio nabarmendu nahi nituzke: euskara eta elkartasuna.

Lehenik eta behin, euskara. Euskarak garai zailak bizi ditu, eta horregatik inoiz baino garrantzitsuagoa da ikastolen eginkizuna azpimarratzea. Ikastolak arnaguneak dira, euskaraz bizitzeko, ikasteko eta komunitatea eraikitzeke espazioak. Kezkaz begiratzen diegu Seaskako ikastolei, Baxoa euskaraz egiteko dituzten zailtasunengatik. Era berean, Nafarroako ikastolen egoerak ere kezkatzen gaitu; izan ere, iragarritako lege-aldaketek 13 ikastolaren etorkizuna kolokan jar dezakete. Horrelako egoerek agerian uzten dute euskararen eta euskarazko hezkuntzaren aldeko konpromiso irmoa beharrezkoa dela oraindik ere.

Bestetik, elkartasuna. Ikastolan elkartasuna gure hezkuntza-proiektuaren oinarritzko balioetako bat da. Horren erakusgarri dira urtero Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzen dugun ikasle taldea edo Palestinarekiko elkartasuna. Balio horri eutsiz, gure gertutasuna eta elkartasuna adierazi nahi diegu industria-krisiaren ondorioz une zailak bizitzen ari diren Ikastola eta Aiaraldeko familiei.

Amaitzeko, ekainaren 14an ospatuko den Araba Euskaraz jaian parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet. Elkarrekin ospa dezagun euskararen indarra eta ikastolen komunitateak egunero erakusten duen elkartasuna.

*Aiara Murga Egia
Ikastolako lehendakaria*

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
2025 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA.....	3
2025 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA	4
2026 EKITALDIRAKO AURREKONTUA	6
2026RAKO KUOTAK	8
2025 EKITALDIAZ HAUSNARKETA.....	10
2026RAKO AURREKONTUAZ HAUSNARKETA.....	11
LHKO ERAIKINA BERRITZEKO PROIEKTUA	12
BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA	15
BOTU DELEGATUA.....	16

2025 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA

	2025	2024
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.350.295	1.389.228
a) Salmentak.....	1.350.295	1.389.228
4. Hornikuntzak.....	(410.921)	(438.066)
a) Salgaien kontsumoa.....	(62.399)	(89.270)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa.....	(181.271)	(160.803)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	(167.251)	(187.993)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	4.307.733	4.375.441
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	19.519	21.732
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak.....	4.288.214	4.353.709
6. Pertsonal gastuak	(4.652.936)	(4.735.302)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(3.623.348)	(3.646.432)
b) Karga sozialak.....	(1.029.588)	(1.088.870)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(336.719)	(332.507)
a) Kanpoko zerbitzuak.....	(292.383)	(274.217)
b) Tributua.....	(3.752)	(3.456)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak.....	(19.349)	(28.239)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.....	(21.235)	(26.595)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.....	(255.060)	(248.571)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena.....	21.958	21.958
13. Bestelako emaitzak.....	1.373	(5.907)
A.1) USTIAPENeko EMAITZA.....	25.723	26.274
14. Sarrera finantzarioak.....	20.005	14.276
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak.....	20.005	14.276
b1) Taldeko enpresa eta elkartuetakoak.....	18.378	12.059
b2) Hirugarren enpresetakoak.....	1.627	2.217
15. Gastu finantzarioak.....	(22.398)	(27.356)
b) Hirugarrenetikiko zorrenak.....	(22.398)	(27.356)
16. Kanbio-diferentzia.....	-	678
18. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak.....	(3.583)	(5.754)
a) Narriadura eta galerak.....	(3.583)	(5.754)
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA	(5.976)	(18.156)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	19.747	8.118
19. Mozkinen gaineko zerga.....	(406)	(261)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	19.341	7.857
A.5) EKITALDIKO EMAITZA.....	19.341	7.857

2025 EKITALDIAREN **EGOERA BALANTZEA**

AKTIBOA

	euroak BALANTZEA 2025	euroak BALANTZEA 2024
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	3.493.664	3.668.673
II. Ibilgetu materiala	3.302.087	3.517.513
1. Lurrak eta eraikuntzak	2.534.769	2.662.008
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	767.318	855.505
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	138.716	131.392
1. Ondare tresnak	127.908	120.584
3. Zorra adierazten duten baloreak	10.808	10.808
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	52.861	19.768
1. Ondare-tresnak	1.550	1.550
2. Hirugarrenetikiko hartzekoak	50.711	17.618
5. Bestelako aktibo finantzarioak	600	600
B. AKTIBO KORRONTEA	784.803	834.175
II. Izakinak	16.831	12.912
1. Merkataritzakoak	7.780	5.740
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	9.051	7.172
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	125.880	129.534
6. Administrazio publikoekiko bestelako hartzekoak	125.880	129.534
V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak	567.899	553.731
5. Bestelako aktibo finantzarioak	567.899	553.731
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	10.228	6.875
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	63.965	131.123
1. Diruzaintza	63.965	131.123
AKTIBOA GUZTIRA	4.278.467	4.502.848

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	euroak BALANTZEA 2025	euroak BALANTZEA 2024
A. ONDARE GARBIA	3.166.941	3.213.000
A.1 Funts propioak	1.482.560	1.447.976
I. Kapitala	148.915	147.421
1. Kapital eskrituratua	148.915	147.421
II. Erreserbak	1.378.133	1.364.384
3. Estatutuetakoko erreserbak	121.500	121.500
4. Beste erreserbak	1.256.633	1.242.884
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(63.829)	(71.686)
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(63.829)	(71.686)
V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positiboa)	19.341	7.857
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.684.381	1.765.024
B. PASIBO EZ-KORRONTEA	608.561	679.760
I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)	-	-
III. Epe luzeko hornidurak	230.140	230.031
1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	230.140	230.031
IV. Epe luzerako zorrak	378.421	449.729
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	378.421	449.729
C. PASIBO KORRONTEA	502.965	610.088
V. Epe laburreko zorrak	69.993	73.440
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	69.989	73.440
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	4	4
VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak	11.167	11.949
1. Taldeko enpresekiko zorrak	11.167	11.949
VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	421.805	484.660
1. Hornitzaileak	34.056	42.927
3. Hainbat hartzekodun	38.614	21.479
4. Pertsonala	25.287	25.319
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	323.848	394.935
VIII. Epe laburreko periodifikazioak	-	40.039
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	4.278.467	4.502.848

2026 EKITALDIRAKO AURREKONTUA

GASTUAK	euroak AURREKONTUA	euroak AURREKONTUA
	2026	2025
LANSARIAK	4.843.872	4.739.430
Irakaslegoa	2.802.299	2.691.363
Administrazioa	182.970	171.498
Jantokia+garraioa	252.919	262.081
Mantentze-lanak-garbiketa	154.731	152.039
Ordezkapenak	244.504	237.541
Aurrejubilazioak-Liberazioak	83.385	59.984
Enpresaren kargurako G. Segurantza	1.078.077	1.111.622
Gastu Sozialak	44.987	53.301
PRESTAKUNTZA	27.637	18.537
FUNTZIONAMENDUA	180.374	187.220
MANTENTZE-LANAK	136.445	147.045
JANTOKIA	134.770	126.116
KOMUNIKAZIOA	22.415	23.400
GARRAIOA	76.881	75.246
ELKARTEAK	11.795	11.691
FINANTZA GASTUAK	16.259	24.272
IKASTOLAKO BEKAK	19.540	17.643
BESTELAKO GASTUAK / EKE	143.525	120.874
URTEKO AMORTIZAZIOA	267.275	257.369
GASTUAK GUZTIRA	5.880.786	5.748.843

SARRERAK

	euroak AURREKONTUA 2026	euroak AURREKONTUA 2025
EUSKO JAURLARITZA	4.270.397	4.183.671
Hezkuntza-Itunak	4.019.703	3.970.687
Inbertsioak	26.838	32.711
Proiektuak- 0-3 urte	81.628	100.529
Bestelako kontzeptuak	142.228	79.744
LAUDIO UDALA	67.257	64.257
KUOTAK	1.270.831	1.273.457
Ikastola	518.086	548.613
Jantokia	454.393	400.999
Garraioa	19.817	25.494
Bestelakoak	11.069	12.600
Aparteko kuota	73.920	79.080
Inbertsio kuota	159.513	170.893
GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak	34.033	35.778
BESTELAKO SARRERAK	79.355	79.907
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	117.084	114.584
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	57.910	52.551
SARRERAK GUZTIRA	5.862.834	5.768.427
2026 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK	-17.952	19.584

2026RAKO KUOTAK

IKASTOLAKO KUOTA OROKORRA IGOERA GABE MANTENDUKO DA 2026AN

2025 ekitaldiaren emaitza eta 2026ko aurrekontuak ahalbidetuko duen egoera ekonomikoa aztertu ondoren, Artezkaritza Kontseiluak ikastolako kuota orokorra, familiek ikastolaren sostengurako ikasleko egiten duten ekarpen ekonomikoa, mantentzea erabaki du, igoerarik aplikatu gabe.

JANTOKIKO KUOTAREN EGOKITZAPENA

Jantokiaren kasuan berriz, zerbitzuaren kostuetan, lehengaietan zein soldatan, pilatu den igoera hilabeteroko kuotatan islatu beharra dago. Izan ere, KPIaren %2,7ko igoera eta %4ko soldata altxaketa batu dira indarrean dugun ekitaldian.

2025 ekitaldian jantokiko emaitza negatiboei aurre egiteko neurriak hartzearen beharra azpimarratu zen. 2026/2027 ikasturtean egoera zuzentzeko neurriekin jarraituko dugu eta igoera berria aplikatuko da jantoki kuotan irailetik. Horrez gain, orain arteko kuota mota biak (0-3 eta HH4tik aurrerakoena) bakarrean batuko dira. Hortaz, 2026ko irailetik jantokiko kuota 98 eurotik 108 eurora pasatuko da.

GARRAIOKO KUOTAREN EGUNERAKETA

Garraio kuotaren kasuan, %5eko igoera aplikatuko da 2026ko irailetik ibilbide guztietan zerbitzuaren kostuetan emandako gorakada konpentsatzeko.

IKASTOLAKO KUOTA

Eskola ordutegi eta egutegi orokorreko maila guztietan:
2 URTETIK BATXILERGOA

	1. SEME/ ALABA	2+ SEME/ ALABA
IKASTOLA.....	52.42€	
GKE.....	3.80€	
INBERTSIO ETA OBRAK.....	25.86€**	
APARTEKO KUOTA.....	10.00€*	
GUZTIRA.....	92.08€	66.22€**

0-1 URTEKO GELAK

0 URTE JARDUN OSOA-8 ORDU.....	293.59€	267.73€**
0 URTE JARDUN MURRIZTUA-5 ORDU.....	226.66€	200.80€**
URTE 1 JARDUN OSOA-8 ORDU.....	213.94€	188.08€**
URTE 1 JARDUN MURRIZTUA-5 ORDU.....	166.93€	141.07€**

***Ikastolako kuota** 12 hilabetetan ordaintzen da; ikasturte bat = irailetik abuztura.*

****Aparteko kuota** 10 hilabetetan ordaintzen da; ikasturte bat=irailetik ekainera.*

*****Inbertsio eta obratarako kuota** familiaka ordaintzen da; 2 seme-alaba edo gehiago matrikulatuta egonez gero, 25,86€, ikasle gazteenaren erreziboan aplikatzen da soilik.*

MANTENTZE-KUOTA: Mantentze-lanetarako txandatan parte hartuz gero inbertsio eta obratarako kuota osoa edo zati bat berreskuratzeke aukera eskaintzen da.

JANTOKI KUOTA

JANTOKIA.....	108.00€	KUOTA BERRIA
JANTOKIA EGUN SOLTEAK.....	8.00€	IRAILETIK

***Jantokiko kuota** 10 hilabetetan ordaintzen da; ikasturte bat = irailetik ekainera.*

LAGUNTZAILE TXANDA AUKERA: 4 urte mailatik aurrera zerbitzuan laguntza txanda burutzen duten familiei 166,78€ itzuliko zaizkie

GARRAIO KUOTA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Ugao-Arrankudiaga.....	75.94€
Arakaldo-Areta-Laudio.....	48.70€

DBH

Ugao-Arrankudiaga.....	63.08€
------------------------	--------

KUOTA BERRIA
IRAILETIK

BATXILERGOA

Amurrio.....	54.62€
--------------	--------

***Garraio kuota** 10 hilabetetan ordaintzen da, ikasturte bat = irailetik ekainera.*

ZERBITZU OSAGARRIA

2 URTE HAURTZAINDEGI EGUTEGIA.....	135.64€
2 URTE ORDUTEGI ASISTENTZIALA.....	27.92€
2 URTE ORD. ASISTENTZIALA EGUN SOLTEAK.....	3.27€
3 URTETIK HILEKO KUOTA.....	65€
3 URTETIK EGUN SOLTEAK.....	6€

BARNETEGIAK

Gau bat.....	70.00€
Bi gau.....	80.00€

2025 EKITALDIAZ HAUSNARKETA

Aurkeztutako balantze eta emaitza kontua Ikastolatik kanpoko ikuskaritza enpresa batek egindako auditorretzan jasota daude eta bazkide guztiek txosten osoa kontsulta dezakete Ikastolako idazkaritzan.

Urtean zehar aurrekontuetan jasotako jarraibideak aplikatzen dira, eta egunerokoan gerta daitezkeen gorabeheren arabera egokitzapenak bideratzen dira. Kontuen ikuskaritza egitean auditoreek proposatutako doikuntza desberdinak kontutan hartuta daude aurkezten diren urteko kontu hauetan.

EMAITZA KONTUA

2025 ekitaldiaren emaitza 19.747€koa izan da, eta aurreko ekitaldietan pilatutako emaitza negatiboak, -63.829€, konpentsatzeko baliatuko da. Emaitza aurrekontuan iragarritakoarekin bat badator ere, ekitaldian zehar aurrekontuan eragina izan duten hainbat doikuntza jaso dira.

SOLDATAK

Soldaten atalean, aurrekontuaren %80a baino gehiago barne hartzen duena, eman dira gorabehera gehienak, eta gehienetan sarrera eta gastu partidatan konpentsatuta azaldu dira. Izan ere, irakasleriaren atalean, finantzatutako Pedagogia Terapeutiko irakasle eta Heziketa Bereziko Laguntzaile lanpostu bana sortu dira ekitaldian, koste berriak hezkuntza itunen bidez estali direlarik.

Atal honetan hurrengo ekitaldian gauzatu diren finantzatu gabeko solda-

ta altxaketei (ez irakasleak eta 0-1 zikloa batez ere) aurre egiteko hornidura sortu da, hau da, 2026an atzeraeraginez ordaindu berri den 2025eko soldata altxaketaren kostea, 2025 ekitaldian jasota geratu da.

Aipatzekoa da ere karga sozialen kasuan, Gizarte Segurantzza, ez dela aurrekontuan aurreikusitako gastu partida osoa gauzatu, zati handi batean lan ezintasuneko kenkariak espero baino gehiago handitu direlako, ordezkapenentarako diru-partida handitu bada ere.

BESTE DOIKUNTZA BATZUK

Azkenik beste doikuntza batzuk txertatu dira hornitzaile kontuak zuzentzeko eta azken ikasturteetan zehar familia zaugarrien harrera prozeduraren ondorioz pilatutako kopuruak konpentsatzeko.

2026RAKO AURREKONTUA

GASTUAK

Ekitaldi honetan, 2026an, otsailan eta martxoan aplikaturiko soldata igoerak aurreikusi dira, 2025eko doikuntza ere kontuan izanda.

Bi aurrejubilazio kalteordain eta bost jarraipen sari egon daitezkeela aurreikusten dugu, 3 irakasle eta 2 ez dozente.

Prestakuntza alorrean jangelako langileek Enbor aholkularitzarekin egindako dinamika txertatu da.

SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako irakasleen Ordainketa Eskuordetuan soldata igoeraz gain, dozenteen ekiparazioa jaso da.

Hezkuntza Itunen kalkulua, 25/26 ikasturterako aitortutako Pe-

INBERTSIOAK

2025ean, besteak beste, ondorengo inbertsioak burutu dira:

- *Haur Hezkuntzako sukaldearen ekipamendu berriztapena.*
- *Haur Hezkuntzako 3 urteko erdiguneko jolas-instalazioaren berriztapena.*
- *Bigarren Hezkuntzako kiroldegiko egituraren azterketa teknikoa.*

dagogia Terapeutiko eta HBLEtan lanpostuak txertatuta daude eta Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuetan emandako galera islatu dira. Horrez gain, 0-1 mailatan ikasle jeitsieraren ondorioz sarrerak ere murriztu dira.

Hizkuntza Indartzeko Programako irakasleen kasuan, HIPI, ikasleko jasotzen den dirulaguntzaren zenbatekoa handitu da eta aldi berean ikasturtean zehar etorritako ikasle kopuak gora egin du.

Kuoten atalean Ikastola kuotan jeitsiera nabarmena dago, ikasle kopurua ere jeitsi delako. Jangelan berriz, 2025eko iraletik aplikatutako kuota igoera azaltzen da.

Beste Sarreraren atalean azkenik, 2026an iada ez da faktura erregulaziorik ematea espero.

2026RAKO EGITASMOAK

- *Jantokiko ekipamenduaren berriztapena.*
- *Lehen Hezkuntzako eraikina berritzeko proiektuaren erredakzioa.*

LEHEN HEZKUNTZAKO ERAIKINA BERRITZEKO PROIEKTUA MARTXAN

1 EDAKETA AITAK IRTEERA ZUZENA JOLASTOKIRA: Barrukoa eta kanpoko harramónen jarri.

2 EDAKETA FATXADA-ITXIERATIK FATXADA AIREZTATUA BURUTU: Fatxada behar den janlaga eta jatorrizko (praktikoaren) itura berrakuratu. Bai hegoalde, zain. Iparraldeko fatxadan ere.

EDUNDO BISERAREN ERREPLINA
AROTZERA MOZBATE
ISOLAMENDUA GENTU
ERAKUNTZA LOTURAK EBATZI

BISERA GENTU INGURATZAILEA BABESTU
FATXADA AIREZTATUA JARRAITU

EDUNDO EGOKIA ETA PROPOSANDUA
ITXU-OSANLEKO FATXADA

EDUNDO EGOKIA ETA PROPOSANDUA
HEGU-MENDERALDEKO FATXADA

OINARRIZKO PROIEKTUA GARATZEKO LEHIAKETA

Lehen Hezkuntzako egoitza berritzeko egitasmoan urrats berriak emango ditugu 2026an. Oinarrizko proiektua garatzeko lehiaketa murriztuan, Aitor Elorduy arkitektoak aurkeztutako proposamena garatzea erabaki du Laudio Ikastolak, xede horrekin bildutako epaimahaiaren ebazpena gauzatuz.

Aukeratutako proposamenak hiru ardatz nagusi izango ditu: Konfort termikoa hobetzea, espazioak metodologia berrien garapena ahalbidetzeko moldatzea eta akustika arazoak ekiditea.

FRONTOIA ETA ESKAILERA GUNEAREN BIRMOLDAKETA

Frontoiaren kasuan sabaian isolamendu ezartzea eta bertako arotzeriaren aldaketa izango ditu kontuan proiektuak.

Eskailera gunean berriz, arotzeria aldatzea eta isolatzeko itxitura berria egitea aurreikusiko da.

FATXADEN ERALDAKETA


Fatxaden kasuan beroa ekiditeko interbentzioak proposatuko dira. Kirolegegi gainekoan, hego-mendebaldekoan, “Brise soleil” edo sareta moduko eguzki-babesa ezartzeko aukera jorratuko da eta esplanadara ematen duen aldean ere, hego-ekialdean, arotzeria aldatetako landuko dira. Zonalde honetan teilatu-hegala ezarriko da euriarekiko babesa hobetzeko.

ZARATA BARETZEKO LANAK

Zarata maila hobetzeko asmoz, kanpoaldean sortzen dena zein gela barrukoa, hainbat aukera landuko dira. Gela barruko erreberberazioa ekiditeko, material xurgatzaileak ezartzea izango da landuko den aukera.

Irizpide hau gelen arteko hormatan zein pasabideetan erabiliko da. Honez gain, arotzerian egingo diren hobekuntzek ere zarata baretzeko aukerak eskainiko dituzte.



PROPOSAMENA
HEGO-MENDEBALDEKO FATXADA



brise-soleil
+ eguzki-kontrola
+ prestazio handiko
arotzeria

ESPAZIOEN ERABILERA ANIZKOITZA

Metologia berriek eskatzen duten espazioen erabilera anizkoitza errazteko, norabide anitzeko hormak jartzea proposatu da, eta kale mailako gelatan, barrualde eta kanpoaldea harremanetan jarriko dituzten ate berriak ere zabaltzea.



OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Laudio Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibako bazkide guztiak 2026ko ekainaren 10ean ospatuko den Ohiko Batzar Nagusira deitzen ditu.

Batzarra kooperatibaren egoitza sozialean burutuko da, Laudio herriko Moxotekale bideko 16.an, arratsaldeko 17:30ean lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarreanean.

Asanbladak ondorengo gai-zerrenda izango du aztergai:

- 1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpen txostenaren irakurketa.*
- 2. Bazkide bi izendatu Batzarraren akta onartu dezaten.*
- 3. Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordearen berriztapena.*
- 4. 2025 ekitaldiaren urteko kontuen eta emaitzaren aplikazioaren aurkezpena, eta hala badagokio, onarpena.*
- 5. 2026 ekitaldirako Laudio Ikastolaren egoera ekonomikoaren azterketa eta aurrekontuen aurkezpena.*
- 6. Informe del equipo directivo.*
- 7. Eskari-galderak.*

Ohar metodologikoak:

- a) Batzar egunean 2. deialdira, 18:00etakora, azaltzea gomendatzen da.*
- b) Bazkide guztiek Batzarrean aztergai izango diren gaien inguruko informazioa bilduko duen txostena eskuratuko dute.*
- c) Haurtzaindegi zerbitzua izango dugu.*

OHIKO BATZAR OROKORRERAKO BOTU ESKUORDETUA

Ikastolako bazkidetzen titularrei (familia bakoitzak izendatutakoak) dagokie Batzar Orokorrean parte hartzea eta bozkatzea.

Artezkaritza Kontseiluak bazkide guztiei, aztergai izango diren puntuen garrantzia ikusirik, Batzar Nagusira azaltzearen garrantzia ekarri nahi die gogora.

Kooperatibaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bazkide bakoitzak norberarenaz gain beste bi bazkideren ordezkaritza bete ahal izango du Batzarrean.

Kontziliazio familiarrerako beharrezkoa izanez gero, bazkide izendatuta ez dagoen familia bereko beste gurasoa egonez gero, zilegi da bera Batzar Nagusirako bazkide titularraren ordezkari izendatzea.

Prozedura hauek bideratzeko, orrialde honen beheko zatian helarazten den akreditazio ereduak behar bezala beteta eta izenpeturik aurkeztu beharko da Batzarreko sarreran.



BOTU ESKUORDETUA

_____ Jaun/Andereak,

_____ ENA zenbakia duenak eta _____ko

auzokidea, Audio Ikastola Kooperatiba Elkarteko bazkide bezala

_____ bazkideari,

_____ ENA zenbakia duena, ematen diot nire ordezkaritza

2026ko ekainaren 10ean ospatuko den Ohiko Batzar Nagusirako, ezina baitut agerian bertora azaltzea.

_____n 2026ko ekainaren _____an.

Ordezkaritza onartzen dut,

_____ -k izenpetua
(bazkidea)

_____ -k izenpetua
(ordezkoa)